



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 20koa. Horren bidez, Mutrikuko Udalari gomendatzen zaio establezimendu batek eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri ingurumen legezkotasuna bete dezala eska diezaion.

Aurrekariak

1. Mutrikuko auzotar batek 2009. urtean erakunde honetan (...) dendaren ondoriozko zarata eragozpen larriak salatu zituen.

Zehatz-mehatz, jarduerak daukan aire girotuaren ekipoaren ondorioz, haren etxebizitzan pairatzen dituen zarata eragozpen larriak salatu ditu. Ekipoa eraikinaren atzeko aldean kokatuta dago, hormari atxikia eta gertuen dagoen etxebizitzatik 2 metrotara. Horrez gain, lokalaren barruan haizagailu bat instalatuta dago.

Kexagileak azaldu digunaren arabera, zaratak biziagotzen dira udako hilabeteetan.

Gainera, Mutrikuko Udalean aurkeztutako erreklamazioen ondorioz, gabezi ugari jasota geratu zirela adierazi zuen.

2. Kexagileak adierazitako gogoeten arabera, Ararteko erakundeak kexa-espeditentea izapidetu nahi izan zuen (erreferentzia zenbakia: 1515/2009) eta Mutrikuko Udalari informazioa eskatu zion egindako ikuskapenak ezagutze aldera, baita uneko gabeziak zuzentzeko aurreikusi zituen jardueren berri izateko ere.

2010eko urtarrilaren 25ean erakunde honen erregistroan sartu zen Mutrikuko Udalaren erantzuna. Horren bidez, bideratutako jarduera garrantzitsuak helarazi zizkiguten.

2008ko uztailaren 4an fruta eta janari dendaren jabeak instalazio lizentzia eskatu zuen. Hasiera batean, Mutrikuko Udalak gaitzetsi egin zuen ez zituelako eskatu zitzaizkion agiri guztia aurkeztu.

2008ko maiatzaren 19an, jarduera lizentziaren eskaera baino lehen, udaleko bulegoetan (...) etorbideko 12. zenbakiko auzotarren komunitatearen kexa aurkeztu zen. Horren bitartez, eraikinaren atzeko aldean, hormari atxikita eta euren etxebizitzatik 2 metrotara kokatuta dagoen aire girotuaren sistematik datozen zaratak salatu zituzten.

3. Hirigintza, Ingurumen eta Obren Zerbitzuaren lehenengo Alkatetza Dekretu baten bidez (erreferentzia zenbakia: 103/2008), 22:00etatik 8:00ak arte erauzgailua eta aire girotuaren unitatea deskonektatzeko agindua eman zen.





4. Irailaren 9ko 143/2008 Alkatetza Dekretuaren bitartez, instalazio lizentzia eman zitzaion eta neurri zuzentzaileak ezarri zitzaizkion. Guri dagokigunari jarraiki, hauxe izan zen neurri zuzentzaileetako bat:

"Haize-berrikuntza

*Lokalaren aireztapena era eraginkor batean egingo da, beti ere inguruko bizilagunei zarata dardara edo usainik sortu gabe
(...)r kale aldera dagoen aize extraktorearen motorra isila izan beharko du.
Atzekaldera dagoen aire girotuaren kanpoko unitateak hots maila mugatua eduki beharko du eta bateragarria izango da inguruko etxebizitzaren egoitzarako erabilpenarekin."*

5. 2009ko irailaren 7an eta urriaren 5ean, 1. solairuko etxebizitzaren barruan sonometriak egin ziren. Hona hemen neurketak burutu ostean ateratako ondorioak:

"Respecto al ventilador situado en el porche:

- *Tal como se halla instalado en la actualidad, transmite al interior de la vivienda más próxima, un nivel de ruido superior a 30 dB(A) en nivel continuo equivalente en Leq. 60-segundos a partir de las 22.00 horas hasta las 8.00 horas.*
- *La transmisión de ruido y vibraciones no se produce por la fachada sino por el forjado que separa el local comercial respecto a la vivienda.*
- *El local incumple una de las medidas correctoras que se imponía en la licencia de actividad con fecha de 9 de septiembre de 2009*

Respecto a la unidad exterior de aire acondicionado:

- *La unidad exterior de aire acondicionado, situada en la fachada posterior, a una distancia de 2,00 metros respecto a la vivienda más próxima, no transmite al interior de la vivienda más próxima, un nivel de ruido superior a 30 dB(A) en nivel continuo equivalente en Leq. 60-segundos (ventana de la habitación cerrada)*
- *Dada la proximidad de de la unidad de aire acondicionado respecto de la ventana, 2,00 metros escasos, y un nivel de ruido generado de de 50 dB(A), implica la necesidad de cerrar la ventana en caso de que dicha unidad esté en funcionamiento"*

6. 109/2009 Alkatetza Dekretuaren bidez, gauzatze agindua atzeratuz, hilabeteko epea eman zen aireztapenerako aire girotuarentzako makina egokiak instalatzeko, auzotarrei isiltasuna bermatu ahal izateko eta lizentzian jasotako neurri zuzentzaileak bete ahal izateko.





7. 2012ko otsailaren 15ean erakunde honetako erregistroan kexagilearen idazki bat jaso zen. Bertan azaltzen zen zenbait aldaketa egin arren, zaratek bere horretan jarraitzen zutela.

Jakinarazpenean egiaztatu zen merkataritza establezimenduan lanak egin zirela.

8. Aurrekari horiek ikusita, egokia iruditu zaigu Mutrikuko Udalari aztertzen ari garen gaiari buruzko ohar batzuk igortzea.

Gogoetak

1. Eskura ditugun datuen arabera, aipatzekoa da gure esku-hartzearen helburuak Mutrikuko Udalak hirugarrenei kalteak saihesteko ezarritako neurri zuzentzaileak urratzeagatik merkataritza jardueraren funtzionamendutik sortutako kaltearen aurrean jardunik bideratu ez izanari erreferentzia egiten diola.

Ingurumenaren babesaren xedea ez da amaitzen eragindako kalteen konponketarekin, elementu eratzailen mantentze lanak ere egin behar direlako. Hori dela eta, argi utzi behar dugu, sailkatutako jarduerak kontrolatze eta ingurumen alorreko legedira egokitze aldera herri administrazioek esku hartzeko duten betebeharra ez dela aukerazkoa, izan ere, interes orokorra defendatzeko eta legeditik eratortzen diren betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkion ahalmen publikoak gauzatzean datza.

2. Espedientean dagoen informazioari jarraiki, ez da nahikoa egiaztatu merkataritza jarduera hori irekiera lizentziaren titularra denik.

Egia da salbuetsien taldearen barruan dagoela, ingurumenean eta gizakien osasunean eragin txikia duelako (martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren III. eranskina) baina horrek ez du esan nahi halabeharrezkoa den udaleko alde aurretiko lizentziarik gabe funtzionatu dezakeenik.

Hala, erakunde honek gogorarazi behar du irekiera lizentzia ematea, udalek teknikarien ikuskapena egin eta gero, jarduera abian jartzeko beharrezkoa den beste izapide bat dela (martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren 4.2. artikulua).

Adierazgarria da 2008ko uztailaren 4an auzotarren komunitateak lehenengo kexa-alegazioa egin zuela eta 2008ko irailaren 9a arte ez zela instalazio baimena eman; izan ere, horrek egiaztatzen du jarduera derrigorrezko lizentziarik gabe funtzionatzen egon zela.

3. Lehenengo gogoeta horiek behin eginda, zarataren eragile nagusiak aztertu behar dira -hormari atxikita dagoen aire girotuaren ekipoa, gertuen dagoen etxebizitzatik 2 metrotara dagoena, eta lokalaren barruan instalatuta dagoen haizagailua-.





Lehenengo Alkatetza Dekretuak -103/2008- jasotzen du arkitekto teknikoak egindako 08/134 txosten teknikoaren ostean, erabaki zela 22:00etatik 8:00etara erauzgailua eta aire girotuaren kanpoko unitatea deskonektatu egingo zirela.

2009ko irailaren 7an eta urriaren 5ean, auzotarrek hala eskatuta, zarataren neurketak burutu ziren lehenengo solairuko etxebizitzetan.

Neurketen emaitzek 30 dB(A) baino altuagoak ziren indizeak jaso zituzten. Horiek dira zaratek eta bibrazioek eragiten duten kutsadura akustikoaren aurrean udalaren jarduera arautzen duen ordenantzak gauerako ezarri duen muga -I. eranskina, 2. taula- (29. zenbakiko GAO, 2010eko otsailaren 15ekoa).

4. Azaroaren 2ko 109/2009 Alkatetza Dekretuaren bidez zera agindu zen:

“LEHENENGOA: *Aireztatze eta aire-egokitu makina egokiak jar daitezela, “isiltasuna” alboko bizilagunei bermatu ahal izateko eta lizentzian aipatutako neurri zuzentzaileak bete ahal izateko.*

BIGARRENA: *Aldaketa horiek egiteko hilabete naturaleko epea ematea. Gainerantzean, ohartarazi beharra dago, jarduera ezingo dela burutu eta udalak legez dagozkion neurriak hartu ahal izango dituela. Hauen artean, besteak beste, jarduera-erabilera behin-betiko eten dadin agindu ahal izango du, eta agindua ez betetzeagatik sustatzaileari dagokion erantzunkizuna eska diezaioke, isunak jarriz.”*

5. Orain arte, establezimenduaren barruan zenbait berrikuntza gauzatu den arren, guk dakigunaren arabera, ez da horman atxikita eta gertuen dagoen etxebizitzatik 2 metrora dagoen aire girotuaren unitatea egokitu.

Erakunde honek gogora ekarri nahi du udalaren jarduera arautzen duen ordenantzak berak, zaratek eta bibrazioek eragiten duten kutsadura akustikoaren aurrean, VI. tituluan, 35. artikuluan, makineriaren eta jardueretako instalazioen azpian, zera ezarri duela:

“1. Ordenantza honetako atal desberdinetan ezarritakoaren kalterik gabe, jardueretan erabiltzen den makineria eta instalazio osagarriak, hala nola **klimatizazio, aireztapen edo hozte-sistemak, ate metalikoak, kargagailuak eta/edo beste ezein motako makineriak ezingo dute gertuen dituzten etxebizitza edo lokaletara igorri, Ordenantza honetan ezarritako zarata eta/edo dardarakoinmisio-balio maximoak.**

2. Kea hustutzeko eta/edo aireztapen behartuko sistemak dituzten lokalen kasuan, behar duten makineria eta, kasua balitz **klimatizazio-aparailua, lokalaren beraren barneko aldean kokatu beharko da.”**





6. Azkenik, karrerapean kokatuta dagoen haizagailuari dagokionez, bibrazioa saihesten duten elementuen bitartez ainguratu behar da, bibrazioak etxebizitzaren egiturari igortzea saihesteko.
7. Orain arte azaldutakoa ikusita, Ararteko erakundeak ondorioztatzen du ezin dela gehiago baimendu eta onartu jarduera horren inguruetan bizi diren familiek horrelako egoera deserosoak pairatu behar izatea.
8. Badakigu instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzeak zailtasunak dakartzala eta, horren ildotik, uste dugu oreka aurkitu behar dela merkataritza jarduera edo zerbitzu jarduera arrakastatsuen eta auzotarrek dituzten eskubideen artean, eskubide horiek atsedenerako eskubidea eta kalitatezko eta soinu nahasmendurik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidea izanik.

Edonola ere, Mutrikuko Udalari berriro gogorarazi nahi diogu beharrezkoa dela baliabideak eta prozedurak arbitratzea era honetako establezimenduen ondoan bizi diren pertsonen eskubideak –intimitaterako, segurtasunerako eta bortxaezintasunerako eskubideak– gauzatzen direla bermatzeko, ezin onar baitaiteke lokalek eragindako eragozpenen ondorioz haien lasaitasuna asaldatzea.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

41/2012 Gomendioa, martxoaren 20koa. Mutrikuko Udalari egina

- Zaratzen eta bibrazioen ondoriozko kutsadura akustikoaren aurrean udalaren jarduera arautzen duen ordenantzaren 25. artikulua ezarritakoari jarraiki (29. zenbakiko GAO, 2010eko otsailaren 15ekoa), jarduerak lokalaren barruan daukan aire girotuaren ekipoa berriro kokatu dezaten, tarteko hormetan edo zutabeetan zuzeneko ainguraketa saihestuz.

Berriro kokatzea lurzoruetan, sabaietan edo bereizketa solairuetan eginez gero, egokiak diren bibrazioaren aurkako gailuan bidez egin beharko da.

- Borondatez lokalaren barruan dagoen aire girotuaren aparatua beste leku batean kokatzen ez bada, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 64. artikuluekin bat eginez, udalak haxe egin ahalko du:

Prebentzio izaerarekin jarduera geldiarazi ezarritako ingurumen baldintzak ez betetzeagatik edo urratzegatik.

Hala badagokio eta alde zuzeneko ohartarazpena egin ostean, ordezkatzeko lanak burutu ahalko ditu eta ondoriozko kostuak titularraren kargura izango dira, premiamendu bidez eskatu ahalko baitzaizkio.





Nolanahi ere, zaratak eta bibrazioak oraindik ere dauden jakiteko beharrezkoak diren ikuskapen teknikoak egin daitezzen.

